

Es narazteko ipuinak

1

ANTSELMOREN AHALEGINAK

Herrira heldu berria nintzen garaian, herritarrek Antselmoz mintzatzen ziren bertze solasgairik ez zegoenetan. Horrela jakin nuen behin bere buruaz bertze egin nahian artsenikoa hartu zuela, baina oka eta oka hasi, nonbait, eta edan ahala bota egin zuela. Hortaz, ez zuen bere asmo makabroa lortzerik izan. Bertze behin eliz dorrera igo eta handik amiltzerakoan zorabiatu eta dorre barrura erori omen zen. Horregatik jendeak ez zuen uste benetan hil nahi zuenik eta Antselmoren ahaleginak irri karkailaka komentatzen zituen tabernako solasaldi patxadatsuetan.

-Hori? Kaskotik egina zagok! -zioen batek.

-Bai, baina ez bere burua hiltzeko bezainbat -bertze batek.

Hala ere, zelako Antselmo hura artean ezagutzen ez banuen ere, ez zitzaidan iruditzen irri egiteko moduko kontua zenik eta horixe jakinarazi nien behin baino gehiagotan tabernako solaskideei. Agian ni nintzen Antselmoren asmoak serioak zirela uste zuen bakarra eta horregatik ez nintzen batere harritu egun batean nire autoko haizetako-garbigailuan utzitako oharra irakurri nuenean: "*Gaueko 10etan xubi ondoko bankuan xure esperoan egonen naiz. Lagundu behar didazu. Antselmo*".

Heldu nintzenerako han neukan, esperoan. Txamarraren papar-hegal altxatuen artean bi begi ikaratu antzeman nituen.

-Zergatik, Antselmo, zergatik?

-Zergatik? Zer nahi duzu, herri guzia nitaz trufatzea ala?

Lagundu egin nion. Lagunduko ez nion, bada?

2

BULEKA

Herriko neska-mutilak apezarekin dotrina saioan ari zirelarik, mutil bat honela mintzatu zen:

-Osabak dio hil ondoren ez dagoela deus ere ez baita inor zerutik edo infernutik edo purgatoriotik sekula ere etorri toki horien berri ematera.

-To! Bada, gure aitak erran ohi du nola den posible Jaungoikoa toki guztietan egonda inork ez ikustea.

Orduan apezak joko berri bat proposatu zien:

-Zuek maiz jolastu zarete buketan. Hau da, batek, horman burua duela, kantu bat egiten duen bitartean, bertze guztiak gorde egiten dira eta banan-banan denak harrapatu behar ditu "*bule Xabi*", "*bule Inex*" erranez. Bada, gaur bestela arituko gara. Jar ezazue zapi bat begietan ezer ez ikusteko moduan eta ni bakarrik gordeko naiz. Nire bila arituko zarete nor bere aldetik eta aurkitzen nauzuenean, zuen izena eman eta nirekin gorde. Horrela egingen

duzue denak nire gordelekuan bildu arte. Orduan bakarrik kenduko duzue begietako zapia.

Bakoitzak bere baliabideak erabili zituen apeza aurkitzeko. Batzuek zein zen apezaren gustuko tokia pentsatu zuten, bertze batzuk adi-adi ibili ziren zerbait susmagarri entzun ahal izateko, baten bat paretak eta altzariak ukitzeaz baliatu zen, bertzeren batek ezkutuan eta jakin gabe zeukan sena baliatu zuen eta gehien-gehienak alferrikako bideak egin ondoren heldu ziren.

Gordelekura azkena heldu zelarik, zapiak kendu, elkarri begiratu eta barre-irri gozoz luzaro aritu ziren. Apezak poz eta irri haiek irakaspena ulertu zuten seinaleztat hartu zituen.

3

ANAIK BEZALA

Gosez hil beharrean omen zeuden ekialdeko erresuma zahar batean. Erregeak, bere menpekoen egoeraz ohartuta, janari mendi bat prestatu zuen herritarrek nahi zutena eta nahi zuten adina jan zezaten. Arroza, lekariak, barazkiak, haragi erreak, mota askotako arrainak, gazta, frutak, pastelak eta abarrekoak ziren mendi hura osatzen zuten jaki gozoak. Dena prest zegoenean, gorteko tronpeta joleak herritarrei deika aritu ziren eta erregearen jauregiaren aurrean denak bildu zirenean, erregea honelaxe mintzatu zen:

-Herritarrok! Alde egin dezagun heriotzatik! Nire soldaduek emandako sardexka bana hartu eta anaiak bezala aritu.

Herritarrak janari mendiaren inguruan pozez gainezka paratu ziren. Jana edukiz gero gosea ona dela pentsatuta, sardexkak janarian gogotik sartu zituzten, baina tresna haiek bi metro luze ziren eta ezin zuten hartutako janaria ahoratu. "*Zakur gosea, erne*" dio esaera zaharrak eta herritarrek berehalaxe aurkitu zuten irtenbidea: janaria batak bertzeari, anaiak bezala elkarri ematea, horixe zen sardexka luze haiek erabiltzeko modu zuzena!

Baina jaso gutxiago eman baino, nonbait, eta herritar batek haserre bizian sardexka bi eskuez hartu eta belaunean bermatuz, alde batera eta bertzera behin eta berriz tolestu egin zuen harik eta burdina hautsi eta tamaina arrunteko sardexka lortu zuen arte. Orduan berak gustuko mokaduak eta nahi adina aukeratzen hasi zen. Hori ikusita berdin egin zuten bertze batzuek.

Bertze herritar batek zorroztarri bat hartu eta bere sardexka ederki asko zorroztu zuen. Lortutako punta ikaragarriak erakutsiz eta haiekin mehatxu nabarmena eginez, jakirik gustukoenak emateko eskatzen zion edonori. Protesta egin zion bakarrari sardexka bularrean sartu eta bihotza alderik alde zeharkatu zion.

OHARRA.- Ipuin hau kontatu zidanari galdera batzuk egin nizkion, hala nola, zer egin zuen erregeak, gosea betiko desagertu zen, nola aritu ziren aurrerantzean eta abar, baina ez zidan erantzun nahi izan.

URDINAREN GAMA

Fisika laborategian irakaslea argia eta kolorea azaltzen ari zen. Ikasleak behin eta berriz ohartarazten zituen bai zientzia arloan bai artearenean behaketak duen garrantziaz. Izan ere, fenomeno ugari eta errealtatearen ñabardura franko izaten dira behaketara ohitua ez denari oharkabean pasatzen zaizkionak. Horregatik erabateko arreta eskatu zien esperimentuan ikusiko zituzten gertakari guztiei erreparatzeko.

Irakasleak apalategi zahar batetik bi flasko atera eta gainean zeukaten aspaldiko hautsa kendu zien ikasle guztiek kolorerik gabeko likidoz beteta zeudela ikusi ahal izateko.

-Flasko honetan likido oxigenoduna dugu eta bertze honetan, berriz, likido hidrogenoduna. Bi likidoak erdiko flasko handi honetara isuriko ditut batera eta nahasi ahala kolore urdina hainbat tonutan ikusiko duzue, hau da, erdiko flaskoko likidoak urdin mota-sorta hartuko du -azaldu zien.

Orduan, horman zegoen kartel batera joan zen. Kartelean hainbat zirkulu urdin diferente seinalatu zituen eta bakoitzari zegokion kolore-izena ozenki eta garbi ahoskatu ondoren, ongi oroitzeko eskatu zien: cobalt, turquoise, light, cerulean, violet, prussian, ultramarine, sky eta electric.

-Zenbat urdin mota eta nolako tonu mailaketa dagoen antzeman behar duzue. Ulertzen? -erran zuen ikasle guztiei betaurrekoen gainetik begiratu sarkorra zuzenduz.

Esku bakoitzean flasko bana hartu eta erdikora isurtzen hasi zen. Berehala, klaseko ikastun nagusia bizkarra makurtu eta bere koadernoan idazten hasi zen. Bere aldamenean, lehen lerroan zeudenek ere bolaluma hartu eta apunteak hartzeari ekin zioten. Isurketa erdira iristerako, ikaslerik alferrenak ere hainbat ohar idazten hasiak ziren. Bukatu zuenean, irakasleak hustutako bi flaskoak utzi eta bertzerik gabe galdetu zien:

-Zenbat urdin mota antzeman duzue?

-Lau!

-Bost!

-Hiru!

Ez zegoen adostasunik, baina denek urdin-mota bat baino gehiago ikusi omen zuten. Beno... denek... Andresek izan ezik.

-Zuk zenbat ikusi duzu, Andres? -galdetu zion irakasleak isilik ikusi zuen-eta.

-Nik? Bat ere ez.

Irri algara ozen eta luzea egin zuten bertzeek Andres dioptria askotako miope demonioa zen eta.

Orduan irakasleak erdiko flaskoa eskuetan hartu eta banan-banan ikasle guztiei erakutsi zien. Flaskoa urez beteta zegoen.

AULKI ELEKTRIKOA

Abyssiniako enperadoreak garbi baino garbiago ikusten zuen bere herria zientzia eta teknologiaren bidetik eraman behar zuela. Herri garatuenean egin zutena egin beharko zuten haiek ere, aurrerapenari ekin eta bizitzaren arlo guztietan modernizatu, hain zuzen ere. Horrela jokatura lortu omen zuten Estatu Batuek daukaten aurrerapena eta, honen bidez, biztanleen ongizatea eta mundu mailako nagusitasuna.

Behin batean, enperadoreak jakin zuen New Yorken heriotza-zigorra ezartzeko teknologia berri eta harrigarria erabili zutela aurrenekoz. Izan ere, aulki berezi batean hobenduna eserarazi, ezusterik ez izateko moduan ongi lotu eta botoi polit bat sakatuz instantean hilik suertatzen zen. Oihurik gabe, odolik gabe, oinazetik gabe. Inguruko herrialdeetako errege eta enperadoreengan mirespen eta bekaitza sortuko zituelakoan, aulki elektriko ale bat eskatu zuen Estatu Batuetan.

Handik bi hilabetera, eskatutakoa heldu zen eta teknikari estatubatuarrek, tramankuluaren funtzionamendua enperadorearen zerbitzariei azaltzerakoan, harrituta gelditu ziren Abyssinian artean elektrizitaterik ez zela ohartzean.

Enperadoreari arazoaren berri eman ziotenean, tronu inperial gisa erabiliko zuela erabaki zuen. Halere, bere kontseilari nagusiari ez zitzaion egokia iruditzen Estatu Batuetan aulki elektrikora zihoazenak gaizkileak eta, ia guztiak, jatorriz, afrikar beltzak zirelako. Hala, enperadoreari bere iritzia makurrarazteko, kontseilariak belagile bat eraman zuen jauregira.

Belagileak hainbat errito eta zeremonia egin zituen aulki elektrikoaren inguruan eta saio luzea bukatutakoan, hauxe erran zion enperadoreari:

-Lotan bezala dauden espiritu gaiztoak ditu aulkiak, indar baten faltan-
edo.

Enperadorea ez zen entzundakoaz sobera kezkatu bazekielako falta zen indarra agertzeko arriskurik ez zela, baina, badaezpada, jatorrizko erabilera ematea deliberatu zuen. Hortaz, aurrerantzean heriotza-zigorra jasoko zutenak aulkian eseri, uhalen bidez tinko lotu (entxuferako kablea ere horretarako erabiliko zuten) eta bertan hilko zituzten.

Halaxe egin zuten. Inperioko bost arkularirik onenak gezi bana jaurtitzen zuten aulki elektrikoan lotuta zeukaten hobendunaren bihotzaren erdi-erdira uhaletan, kableetan eta botoi politean kalterik egin gabe.

HERIOTZAREN ERLOJUA

Bizimodu lasai eta gozoa zeraman gizon aberats batek. Zenbaitetan bidaia luze eta garestia egiten bazituen ere, normalean orduak golfean jokatzen ematen zituen, edo bera bezain aberatsak ziren lagunekin jatetxe onetan bazkaltzen edo aberatsei gustatzen omen zaizkien bestelako jardueretan. Zaletasunik handiena, ordea, Interneten nabigatzea zuen, inolako zalantzarik gabe.

Egun batean halabeharrez www.deathclock.com webgunea jo zuen eta Raymond Camden estatubatuarrak asmatutako erlojua ezagutzeko parada izan zuen. Erlojuak atzerako kontua erakusten du, hau da, hil arte falta zaizkizun segundoak markatzen ditu atzeraka, erran bezala, eta zoritxarreko une fatidikoa heltzerakoan, alarma jotzen du.

Gizon aberatsari ez zitzaion heriotzaren erlojua erostea interesgarria iruditu, baina bere heriotzaren data ezagutzeko tentazioari ezin izan zion uko egin. Hala, datu pertsonalak paratu eta han agertu zen jakin nahi zuena: *Wenesday, August 19, 1998*. Pantailaren erdian gelditzen zitzaizkion bizitza-segundoak (438.847) etengabe beheiri zihoazela ikusi zuen: 438.846, 438.845, 438.844 ... Emandako datagatik eta batez ere, diru kontuei esker zenbakietan garatua zuen trebeziaz baliatuz, berehala ohartu zen bost egun eta bi ordubete eskas baino ez zituela azken une fatidiko horretara heltzeko. Webgunea ixtea izan zen erabaki zuen aurrena, baina une hartan erloju-makineria jira-biraka ikusi zuen eta burdinazko gurpil koskadunen artean Heriok begi-keinua egin ziola ohartu zen.

Bere patua ezagututa, zer egin behar zuen galdetu zion bere buruari. Bizitzan nahi izan zuen guztia eskuratu ahal izan zuen, behar izan zuen guztia eta desiratu zituen apeta guztiak, hain zuzen. Bat-batean, etxeak, dirutzak eta gainerako ondasunek izan zuten balioa arras galduta zegoen ez baitzuen aurrerantzean horrelakorik beharko. Asko pentsatu eta gero, zituen ondasun guztiak pobre eta giza eskubideen alde lan egiten zuten taldeen artean banatu zituen. Horretarako, gelditzen zitzaizkion bost egunak notarioarenean eman zituen eta, gainera, denbora izan zuen diru kontuak zirela-eta galdutako bi adiskideri barkamena eskatu eta haiekin bakea egiteko.

Abuztuaren 19an gizon aberatsa goizean goiz eseri zen ordenagailuaren aitzinean. *Seconds left to live... 7, 6, 5, 4, 3, 2, 1, 0!*

I am sorry, but your time has expired!

Nahasi samar sentitu zen gizona. Bizirik segitzen zuen, dudarik gabe, baina agian Estatu Batuetatik Europara dagoen ordu-diferentzia kontuan hartu beharko luke garaipena aldarrikatu baino lehen. Berehala ohartu zen eskatutako datuen artean ez zegoela herriarena eta orduan bizitzaz beterik sentitu zen, sekula izan ez zuen bizi pozez gainezka zegoen.

Bere hileta elizkizunetarako utzitako dirua hartu eta handik urrutira abiatu zen. Batzuek eskale ibili zela diote, bertze batzuek zoo batean garbiketa lanak egiten zituela entzun dute eta bertze batzuek komentu batean monje egon zela uste dute, baina den-denak honako honetan datoz bat: gizona arrunt zoriontsu bizi zen. Nolanahi ere, ziur jakin den bakarra bere heriotza da. Izan ere, eroetxe bateko lorategian aurkitu zuten bere gorpua. Ezkerreko eskumuturrean zeraman zilar koloreko erlojuak *Raymond Camden* marka zuen eta bertan haxe irakur zitekeen: *Seconds: 0*.

7

HEGAN, HEGAN, HEGAN...

Telebistarik ez zegoen garaian, neguko hotzari bizkar emanda, umeak etxeko giro epelean jokoan aritzen ziren. Kartak, domino, partxis eta horrelako jokoez aspertzen zirenean "*hegan, hegan, hegan...*" jokoa bizigarri suertatzen zitzairen. Joko honetan, neska-mutiko guztiek hatz erakuslea mahai gainean paratzen zuten eta batek "*hegan, hegan, hegan...*" hasi eta isilunea egin ondotik, izen bat botatzen zuen. Izen hori hegalaria batena baldin bazen, denek hatza gora altxatu behar zuten eta altxatzen ez zuena edo berandu egiten zuena kanporatuta gelditzen zen. Hegalaria ez bazen, ordea, hatza mahai gainetik mugitu gabe utzi behar zuten jokotik kanpora atera nahi ez bazuten, bederen.

Bada, egun batean, anai-arrebak eta lehengusu-lehengusinak jolasean zirela, anaiak haxe bota zuen: "*hegan, hegan, hegan... ... ELEFANTEA!*" eta Deñek berehala eta indarrez altxatu zuen hatza. Irri ozena egin zioten denek eta lau urteko neskatoa negarrez aitatzirengana joan zen kontsolamendu bila.

-Elefanteek ezin dute hegan egin hegorik ez dutelako, maitea -erran zion aitatzik lasaitu nahian.

-Bada, nik hegan ikusi ditut ipuinetako irudietan.

-Bai, baina horiek ez dira egiazkoak, marrazkiak dira, Deñe.

-Eta zergatik ez dute hegorik?

-Jaungoikoa erabat jakintsua delako. Naturan dagoen guztia antolatu du gizateriaren onerako, gu guztioi laguntzeko, alegia.

Neskatoak ez zuen piperrik ere ulertu eta argiago azaltzeko eskatu zion.

-Oso erraza da -segitu zuen aitatzik-. Ez al zara ohartzen? Elefanteek hegoak balituzte, gure dorreetara igoko lirateke eta hantxe edo gure terrazetan habia itzelak eginen lituzkete. Jakina, horrek gure eraikinak suntsituko lituzke. Gainera, orro ikaragarriak botako lituzkete eta ez ligukete siesta behar den bezala egiten utziko.

Deñek ez zirudien sobera konbentzituta ipuinetan ez baitzuen horrenbeste arazorik ikusi eta neskatoaren atzean zegoen amak burua alde batera eta bertzera mugitzen zuen bere aitaren azalpena gaitzetsiz.

8

TXANTXANGORRIAK KANTARI

Munduko hiririk handienetako antzoki ospetsuetan arrakasta ikaragarria lortu zuen tenorearen hileta zen. Izan ere, mundu osoa liluratzeko moduko ahotsa dutenei ere betiko isiltzeko tenorea iristen zaie Heriok ez baitaki bereizkeriarik egiten. Normalean egiten den bezala, katedralean zeremonia handia egin ondoren, tenore sonatuaren gorpua hilerrira eramán zuten.

Herri askotako telebista eta kazetari aunitz bildu ziren azken agurraren testigantza mundu osoari helarazteko. Senitartekoak, betaurreko eta traje beltzak jantzita, lehen lerroan zihoazen beren samindura nabarmen adieraziz eta haiengandik ahalik eta hurbilen irudietan agertu ahal izateko, politikariak eta *couché* paperean agertu ohi diren artistak, hauek ere aurpegian seriosotasuna eta mementoak eskatzen zuen gizalegea itxuratuz.

Hilerrian, apezak bere otoitzak bukatu zituenean, isiltasuna erabatekoa zen. Hilkutxa hobira sartu eta alargunak, gelditzen zitzaizkion indar apurrak bilduta, palakada bat lur bota zuenean, altzifre batean zegoen txantxangorriak kantuari ekin zion gogotik. Tenore handia izan zenari egindako omenalditzat hartu zuten bildutakoek. Berehala txantxangorri gehiago hurbildu eta kantuan aritu ziren. Apezak alargunari ahopeka erran zion zeruan aingeru-koruak hartu zuela seguruenik zenduaren arima. Kazetari batek biharamuneko egunkarian poesia sut sua idaztea erabaki zuen eta denak tenore handia izan zena bakean zetzan hilerritik aldendu ziren hunkituta.

Orduan, kantuan hasi zen txantxangorria eta berak deitu zituenak batera joan ziren tenore handia izan zenaren hilobira, lur mugitu berrian ugari izaten diren xomorro, larba eta zizareak jatera.

9

KARTZELAKO HORMA SENDOAK

Reggio-ko Askapenerako Talde Anarkistaren Komiteak, lau urte baino gehiago bildu gabe eman ondoren, anarkismoaren etorkizunarentzat arras garrantzitsua izan litekeen bilera egin zuen. Azken sarekadaren ondorioak latzak izan ziren taldearentzat eta egindako bileran garbi gelditu zen borrokan eroritako borrokalariak kartzelatik ateratzea lehen mailako helburua zela. Ez zen helburu erraza, baina. Alde batetik, presondegiaren barruan lau urte luze zeramatza ten borrokalariak ez ziren oraindik ihesa antolatze ko gauza izan.

Bertzetik, kartzelako segurtasun neurriak ikaragarri areagotu egin ziren komitearen indarrak eta azpiegiturak ahuldu ziren neurri bertsuan.

Gauzak honela, bi bide jorratu behar zuten. Bata, ihesa ahalbidetzeko kanpoko azpiegitura. Bertzea, kartzela barruko antolaketa. Azken honetaz arduratzeko Giulianok bere burua eskaini zuen eta aho batez hautatu zuten.

Giulianok uste zuen kartzelako borrokalarien askatzaileak presondegian batere susmo txarrik sortu gabe sartu behar zela eta honela ihesa antolatzen nolabaiteko patxadaz arituko zela. Horretarako onena konbiktu gisa sartzea zela uste zuenez gero, denbora galdu gabe prestaketa-lanari ekin zion eta, garai zaharretan bezala, lau molotov koktel bota zituen *Banco Ambrossiano* banketxearen kontra. Gelditu zitzaion munizioa hartu eta Enpresarien Elkartearen Egoitzari eraso egiteko prest zegoela, *carabinieri* batzuk agertu eta bertan atzeman zuten.

Kartzelan emandako lehendabiziko astean, Giuliano preso borrokalariak aztertzen aritu zen. E. Zanetti borrokalaria ogi zatiak biltzen ikusi zuen eta iheserako bizigaiak izanen ote ziren pentsatu zuen. Bertze behin, Luigi borrokalari historikoa garbiketarako detergentea lapurtzen ari zela ohartu zen eta guardei edanarazi eta ihes egiteko izanen zela uste izan zuen. Baina Giuliano gehien harritu zuena borrokalari anarkistek kartzelako arratoiak zeukaten harremana izan zen. Izan ere, arratoitzarrak eskuetan hartzen zituzten eta ematen zuen animalien joan-etorriak kontrolatzen zituztela. Horregatik, Giulianok pentsatu zuen arratoiak kartzelaz kanpokoekin komunikatzeko entrenatzen ari zirela.

Bigarren astean, preso borrokalariarekin solasean aritu zen. Beren asmo eta planak ezagutu nahi zituen eta ondoren ekimen guztien buru izanen zen denentzako askatasuna berreskuratu arte. Banan-banan eta disimulu handiz guztiekin mintzatu zen.

Hirugarrenean, solasaldien laburpen hau idatzi zuen gero “kartzelako egoera” izenburuko txostena komitera bidali behar zuen-eta:

“Bidaia” hitza aipatu eta batek “marihuana” aipatu zidan, bertze batek, ordea, “bertze pabiloi batera” joatea ulertu zuen.

“Bizigaiak” eta “elikagai-hornidura” gebienentzat “kartzelako arrantxoak” da.

“Ihesa” hitza ez dakit zenbat aldiz erabili dudan egun hauetan. Alferrik. Preso borrokalari guztiek ihesa “guarden zigorra saihestearekin” identifikatzen dute.

“Kanpoko mundua” haienentzat “bertze presondegi bat” da.

Ogia ez zen iheserako, domino fitxak egiteko baizik. Detergenteak alkohola omen dauka eta presoek mozkortzeko lapurtzen dute. Arratoiak ez dituzte deusetarako entrenatzen, beren etxeko animaliak dira.

Laugarren astea negarrez eman omen zuen Giulianok.

Hainbat urte geroago, borrokalariari kondena bukatu zitzaienean, kalera bidali zituzten, baina Giulianok bertan segitu zuen, ihes-saialdi zenbait zirela-eta, zigorraldia luzatu ziotelako.

10

BILA

Ero eta Zoro lagunak ospitale psikiatrikotik ihes egitea lortu zuten. Erok ospitalean antzerkia egiteko erabiltzen zuten burdinazko koroa lapurtu zuen zeren ziur baitzegoen burdina urre bihurtzen zuen harri magikoa aurkituko zuela eta orduan aberats eta munduko errege izanen zela.

-Hi kaskotik egina hago, motel, -erran zion Zorok- zertarako nahi duk dirua? Ez al dakik horrek ez duela zoriontasunik ekartzen?

-Hi haiz burutik sano ez dagoena! Maitasunean, zoriontasunean eta horrelakoetan sinestea ere! Nora joan behar duk horien bila, putetxe batera edo? -bota zuen Erok bere hitzak irriz ospatuz.

Zorok bere lagunari suertea opa eta mendiko bidea hartu zuen. Ero, berriz, itsasora abiatu zen buruaren gainean lapurtutako koroa zeramala ziurtatu ondoren. Itsasertzeko harri koxkorak hartu eta koroan kax, kax! jotzen zuen burdina urre bihurtuko zuen harria aurkitzeko esperantzan. Harri magiko horrekin nahi hainbat burdina urre bihurtuko zuen eta munduko aberatsena ez ezik munduko errege ere izanen zen.

Harri koxkor bat hartu, koroan kax, kax! jo eta harri koxkorra bota. Horixe zen Erok egunean ehunka aldiz egiten zuena. Eta horrela egunak, asteak, hilabeteak, urteak eman zituen. Egun batean, basamortu ematen zuen hondartza luze batean Zoro lagun zaharrarekin egin zuen topo.

-Aurkitu al duk zoriontasuna? -galdetu zion.

-Ez, ezin izan diat nahi nuena aurkitu gogotik saiatu banauk ere. Hi, berriz, bai, aurkitu duk. Zorionak! -erantzun zion Zorok koroa seinalatuz.

Ero harrituta gelditu zen koroa bi eskuez erantzi eta begi aurrean paratuta urre bihurtua zela ikusi zuenean. Izan ere, koroa bakarrik gauez kentzen zuen buruaren gainetik eta horregatik ezin izan zen aldaketaz ohartu ez gauez erantztean ezta harri magikoaz kax, kax! jo zuen mementoan ere. Bere suerte txarra madarikatu zuen harri magikoa botatzeagatik eta are gehiago non egon zitekeen ideiarik ere ez edukitzeagatik. Koroa besapean hartu, buelta erdia eman eta ibilitako bidetik itzuli zen.

Orduan, hori ikusita, Zorok ulertu zuen zer egin behar zuen. Berak ere buelta eman eta etorritako bidetik joan zen.

11

FILOSOFO JAKINTSUA

Nepaleko monasterio zahar batean filosofo jakintsu bat ikasle gazte batzuekin bizi zen. Behin batean, ikasleotariko bat larri eta oihuka joan zitzaion:

-Maisu, maisu! Ikaragarria, izugarria...!

-Lasai, lasai, gazte -moztu zuen filosofoak bere barneko bake eta oreka gazteari kutsatu nahian-. Kontatu nahi duzun hori hiru baheetatik iragazi duzu?

-Hiru baheak?

-Bai. Lehena egia da. Ziur zaude kontatu nahi didazuna erabat egiazkoa dela?

-Bai. Bueno... ez, ez dut ikusi. Lagun bati entzun diot.

-Espero dut hurrengo bahetik iragazi duzula. Bigarrena ontasuna da. Ziur al zaude erran nahi zenidan hura inorentzat ona dela?

-Ez, maisu. Ez da batere ona.

-Hara! Ea hirugarrena. Azken bahea beharra da. Beharrezkoa al da hainbeste aztoratu zaituena niri jakinaraztea?

-Ez, -erantzun zion gazteak une batez pentsatu ondoren- honezkero, ez.

-Orduan, -erran zuen jakintsuak irribarre baketsua erakutsiz- egiazkoa ez bada, ona ez bada eta beharrezkoa ere ez bada, ahantz dezagun.

Biek elkarri irribarre lasaia egin ondoren, ikaslea lagunengana itzuli zen eta haiekin topatu zenean, jakin zuen ikasleen arteko liskar bortitzaren ondorioz hildako bat eta hiru zauritu larri izan zirela. Orduan, ikasleari hauxe atera zitzaion bakar-bakarrik:

-Ikaragarria, izugarria...!

12

MATTINEN MALKOAK

Etxepekoborda baserriko Mattin zaharrak aspaldian zuen egina modernitaterako bidea. Hirian bizi zen bere alabaren eskutik sukaldea erabat zaharberritu zuen. Bitrozeramika, labe digitala, ke-erauzgailu elektrikoa, altzairu herdoilgaitzezko harraska, presio-eltzeak eta puntako teknologiako tramankulu horiek guztiak erosi zituen. Akabo beheko su deseroso eta geldoa! Agur eltze-ondoko, trebede, laratz, supala, bertzun eta antigualeko tresneria guztiari!

Obrak bukatu zirenean, traste zahar guztiak baserri ondoko zabortege batean pilatu zituen txatar-biltzaileraren batek erosiko zizkiolakoan. Ez zen

erraza inor paraje hartatik pasatzea eta txatar-pila hura luzaro egon zen han, hautsa eta zikinkeria etengabe pilatzen.

Behin furgoneta zahar bat hurbildu zen Etxepekebordara. Mattinen alabak bidalitako txatar-biltzailea zen. Kez belztutako bertzun, laratz, pertz, eltze-ondoko eta abarrekoak, kobrezko hainbat pazia, txokolate-ontzi, maskelu, galdara, olio-ontzi... dena gaineko lohia pixka bat kendu eta furgonetara sartu zuen. Ez zuen deus ere utzi. Gainera, biltzaileak berrogeita hamar duro pagatu zion Mattini eta honek eskerrak eman zizkion gizonari.

Urte gutxi batzuk pasa eta alabak Mattin hirira eramane zuen egun batean, biak Museo Etnografikora joan ziren. Hogeina euro pagatu behar izan zuten sarreran. Mattinek gauza eder franko ikusi zuen museoan, baina bihotzean astindu bortitza sentitu zuen gela bateko bazter batean "*Echepekeborda. MALCORREGUI (Navarra)*" irakurri zuenean. Zabortegeitik eramandako guztiak hantxe zeuden ederki garbiturik eta dir-dir. Hantxe jaio zenetik etxeko sukaldean berak ikusitakoak! hantxe gurasoengandik jasotako altxorra! hantxe hain urrun ikusten zuen haurtzaroko lekuko mutuak eta iraganeko bizimodu galdua! hantxe bizitzaren zati bizia bere lekutik erauzi eta museo arrotz hartara eramana! Hitzik atera gabe egon zen, begira, harik eta alaba Mattinek malkoak musu zimurtuan barrena zituela ohartu zen arte. Orduan besotik heldu eta honela erran zion:

-Venga, aita, vamos a casa. Es tarde.

J.J. Irrisarri Carcar